

HERRI BAT KOLOKAN

Migratzaileen kontrako murrak tartariarrak hesitu ditu

 **JENDARTEA** / Karlos ZURUTUZA

Ostalaritza-negozio bat hemen, Kruszy-nian. Apustu benetan arriskutsua da: finean, zer eskaini lezake Poloniaren ertzean, Bielorrusiako mugan, dagoen herrixka batek? Berrehun biztanle baino ez dira, gainera. Negozioaren jabe Dzenneta Bogdanowiczek beste ikuspegi bat dauka. Honela diosku: «Tartariarra naiz, eta hauxe gure lurraldearen bihotza da Polonian».

Begi grisetako 60 urteko poloniar honek Europako azken bisontekin konpartitzen du bere erreinua. Bestela ere ehunka hegazti hurbiltzen dira urtero bertako lakuetara, baso artean ezkututzen diren horietara. Ez da harritzekoa, beraz, Podlasia izeneko eskualde honi «Poloniako Amazonia» ere deitzea. Dzenneta «luze» mintzo zitekeen horretaz, baina gaur ez: oso lanpetuta dago eta, aukeran, nahiago du bere herriaz hitz egin. «Tartariarrak gara, bai eta poloniarrek ere. Batak ez du bestea kentzen», argitu nahi du hasieratik.

Bere negozioak Tatarska Jurtan du izena. Ostatu, museo eta kultur etxea ere bada. Koranaren edizio zaharrak ikusi ditugu beirazko hainbat kutxatan gordeta, bai eta amona tartariarrek jositako jantziak, sableak, Poloniako tartariar zalditeriaren uniformeak... ere.

Dzennetak eta Miroslav bere senarrak duela 20 urte zabaldu zituzten bertako ateak. Ez da erraza izan. 2018ko sute beldurgarri batek dena hondatu zuen, eta pandemiak are gehiago estutu zuen bikotea. Mundu mailan konfinamendua bukatu berri zegoela, eskualde honek beste berrogeialdi bat

jasan behar izan zuen. Harresi bat eraiki zuten Poloniako Amazoniaren erdian. Bertako basoak, ibaiak eta zelaiak murriztutako sarbideko eremu bilakatu ziren. Harresia herritik bi kilometrora baino ez dagoenez, Dzennetak eta bertako gainontzeko enpresariak ezin izan zuten lan egin hamar hilabete luzez.

2021eko abuztuan, Bielorrusiak migrazio fluxu bat bideratu zuen Polonia, Letonia eta Lituaniako mugetara. Ekialde Hurbiletik eta Ipar Afrikatik iritsitakoak ziren gehienak. Bielorrusiako Gobernuak bere parte-hartzea ukatu bazuen ere, Europa Batasunak nahiz begirale independenteek «gera hibridoaren zantzuk» salatu zituzten.

Bielorrusiako 2020ko hauteskunde gatazkatsuak zirela eta, Minskek zigor bortitzak pairatu zituen. Hortxe omen zegoen gakoa.

2021eko bigarren erdian, milaka migratzaile saiatu ziren Polonian sartzen. Gutxienez, hogeit hamar pertsona hil ziren negu hartan; gehienak, hipotermiak jota. 2022ko urtarrilean, Polonia mugako harresia erakitzen hasi zen: sei metroko altuera zuen, bai eta alanbre hesiak eta milaka kamera ere. Iritsierak nabarmen jaitsi ziren. Oztopoak oztopo, saiakerak biderkatu egin ziren 2024an eta, haiekin batera,


tentsioa eta indarkeria. Mugako guardia poloniar bat laban-kadaz hil zen eta horrek beste inflexio-puntu bat ezarri zuen. Migratzaile bat izan zen ustezko erasotzailea.

Poloniak neurri zorrotza-goekin erantzun zuen; harresitik 200 metrora bazterketa

gune bat ezarrita, besteak beste. Varsoviaren aburuz, «legez kanpoko» igarotzeak %64 murriztu ziren hiru hilabetetan. Dena den, estatistikek bestelako errealitatea erakusten dute tartariar komunitate txikiarentzat: gehiago dira alde egiten dutenak, iristen direnak baino.

«Duela gutxi 5.000 tartariar inguru ginen Polonian. Egun, apenas gara 2.000. Tentsioek, gertaerek, berrogeialdiek... Denek eragin bortitza dute», ke-xu da Bogdanowicz. Lituania 3.000 tartariar gelditzen dira, eta 8.000 inguru omen dira Bielorrusian. Kopuruek ez diote baikortasunari bide ematen; are gutxiago, herri honen

Bertako tartariar bat, Kruszyanyko meskita barruan.
Gilad SADE



erdia baino gehiago harresia-
ren beste aldean dagoelako.

ONDAREA

Arkitekto juduek eraiki zuten
Kruszyniany herriko meskita,
duela 200 bat urte. Gaur egun,
Poloniako tartariarren ikono
bisualetako bat dugu egurrez-
ko eraikin berde hau. Lehen al-
diz iritsi zirenean, XIV. men-
dean, askok beren erlijio
xamanikoari eusten zioten
oraindik ere. Nolanahi, Litua-
niako duke handiak gonbida-
tutako hurrengoak musulma-
nak ziren. «Lipkako
tartariarrak» ere esan ohi zaie.
Krimeako tartariarrek «Lipka»
deitzen zioten Lituaniari. Jato-
rri bera dute, hain zuzen, he-



Kruszynianyko meskita berdea herri honen ikonoetako bat da egun. Gilad SADE

mengoek eta Itsaso Beltze-
koek.

Bertakoek bat egin zuten Po-
loniako Armadarekin, eta lu-
rrez nahiz tituluez ordaindu zi-
tzaien beren leialtasuna. XVII.
mende hasieran finkatu ziren
Podlasiar eta, adituen ustez,
Europako musulman komuni-
tate aktibo zaharrena dira. Hiz-
kuntza, alabaina, duela mende
asko galdu zuten, baina beren
erlijioa eta ondare kultural
aberatsa gorde dute. Etnolo-
goek diotenez, komunitate ba-
rruko ezkontzak izan dira bizi-
raupen horren gakoetako bat.
Horrela uler daiteke zergatik
diren oraindik nagusi asiar be-
gi eta masailezur nabarmen

horiek. Ideia bat egitearren,
nahikoa da Charles Bronson
Hollywoodeko aktore ezaguna-
ren argazki bat bilatzea. Bron-
son —Buchinsky, jaiotza-agi-
rian— lituaniarren semea zen,
bai eta estepako nomaden on-
dorengo zuzena ere.

Halina Szahidewiczek ere
aski ezaguna du Hollywoode-
ko aktore tartariararren jato-
rria. 89 urteko emakume hau
Bialystokeko Tartariar Komu-
na deiturikoaren sortzaileeta-
ko bat da. Bertan, herri honen
kultura eta erlijioa ikertzen di-
ra. «Poloniako tartariarren
poemak errezitatzen ditugu,
etxe bakoitzeko dantzak eta
tradizioak bildu, liburuak argi-
taratu... Gurea ez ezik, polo-
niarren ondarea ere bada», dio
bere apartamentutik ile zuriko
andreak.

1939an, Sobiet Batasunak
ekialdeko Polonia anexionatu
eta Bigarren Mundu Gerra hasi
ondoren, bi tartariar herrixka
baino ez ziren geratu herri-
alde osoan: Kruszyniany eta
Bohoniki. Komunismoaren
garaian, gogoratu du Szahide-
wiczek, «nazionalitate txikie-

nak zaintzen ziren, eta horrek
haien gaineko kontrola erraz-
ten zuen. Gure meskitak berri-
tzeko dirua ere bazegoen. Bai-
na gure gazteek hirietan
ikasten zuten, eta haietara jo-
tzen zuten, beren herrixketa-
tik urrun».

Adineko andre honek Polo-
nia «katolikotzat» jotzen badu
ere, bere herri eta erlijio aniz-
tasuna nabarmendu nahi du.
«Baliteke batzuetan gaizki-
ulertuak gertatzea, baina bizi-
kidetza harmoniatsua dago
guztion artean. Poloniako zati
integrala gara eta seguru sen-
titzen gara hemen», azpima-
rratu du Szahidewiczek.

Arazo berriei ere ez die begia
kendu. «Migrazio krisiak guz-
tiori eragiten digu hemen, kris-
tauei nahiz musulmanoi. Kez-
katuta ote gauden? Jakina!».

ABUSUAK ETA TENTSIOAK

2024ko abenduan argitaratu-
tako txostenean HRW-k
«gehiegikerien eredu sistema-
tikoa» leporatu zion Poloniako
Mugako Guardiari. GKE horrek
dio Polonia barruan zenbait
migratzaile harrapatu eta Bie-



**1939an, Sobiet Batasunak ekialdeko Polonia
anexionatu eta Bigarren Mundu Gerra hasi
ondoren, bi tartariar herrixka baino ez ziren
geratu: Kruszyniany eta Bohoniki**

**«Haien biziraupena bermatu nahi bada,
garrantzitsua da oso lurralde historikoan
bizitzen jarraitzea, baina gero eta zailagoa da»,
dio Anna Alboth ikertzaile poloniarrek**



lorrusiara itzultzer behartu zituztela, legeak agindutako prozeduratik kanpo. Legez kanpoko kanporatzeez gain, jipoiak, piperbeltz gasaren erabilera eta telefono mugikorren suntsiketa edo konfiskazioak salatu dira, besteak beste.

Ildo berean, Poloniako Giza Eskubideen Komisionatuak nahiz Europako Giza Eskubideen Komisionatuak argudiatu dute Podlasiako murrizketek zaildu egiten dutela kazetarien eta erakunde humanitarioen sarbidea. Ziurgabetasuna dela eta, turistek bidaiak bertan behera uzten dituzte, eta horrek amildegi-rantz bultzatzen ditu tartariar askoren negozioak.

Ingurumenaren begiraleek ere alarmak piztu dituzte: harrisiak Bialowiezako basoa (UNESCOren Munduko Onda-

rea) eta antzeko eremuak zeharkatzen ditu eta bertako bizitza eta ekosistema hauskorak aldatu ditu. «Podlasian gertatzen ari dena etika ezaren ondorio hutsa da. Egoera bel-durgarria da inguruko jendearentzat, tartariarrak barne», azaldu du, telefonoz, Anna Alboth kazetari eta Minority Rights Group-eko ikertzaile poloniarrek.

Ministerioak ez du ezer esan mugako krisiak tartariar komunitatearengan izandako eraginaz, ez eta haren etorkizunari dakarkion arriskuaz ere

2024ko abenduan argitaratutako txostenean Human Rights Watchek «gehiegikerien eredu sistematikoa» leporatu zion Poloniako Mugako Guardiari

Dzenneta eta Miroslav Bogdanowicz ostalariak beren negozioari eutsi nahi diote Kruszynianyn. Gilad SADE

«Lipkako tartariarrak altxor hutsa dira, bai Polonian bai Europan», dio Albothek. «Beren meskitak eta duela 600 urtetik herrialdean duten presentzia Poloniako erlijio eta kultur tolerantziaren eredu dira. Mendeetan zehar kasta militar sendo bat osatu zuten, eta, gaur egun ere, agerikoa da horren ondarea. Askok armadan edo mugako guardian zerbitzatzen jarraitzen dute», azaldu du.

Ikertzaileak azpimarratu nahi du komunitate «bereziki zaurgarri» batez ari garela, hain da txikia bere kopurua. «Haien biziraupena bermatu nahi bada, garrantzitsua da oso lurralde historikoan bizitzen jarraitzea, baina gero eta zailagoa da», dio Albothek. Turismoaren gainbeherak lan aukeren eskasia larriagotu

duela gogoratu du. «Beren egoerak okerrera baino ezin du egin».

GAUR8k bidalitako galderei erantzunez, Poloniako Barne eta Administrazio Ministerioak «Errusiako eta Bielorrusiako erregimenen migrazioaren erabilera instrumentala» azpimarratu du. Varsoviaren aburuz, «inguruko herrialdeetako eta Europar Batasuneko barne egoera ezegonkortzea» da helburua.

Varsoviak 2021eko abuztutik 2025eko urtarrilera bitartean guardia bat hil eta 13 zauritu direla baieztatu digu. «Askotan biolentoak dira, eta Poloniako patruilek hainbat eraso jasan dituzte. Erasoetan, habailak, harriak, botilak, bengalak, adreiluak edota makila iltzedunak erabili dituzte», diote ofizialek.

HRW-ren txostena dela eta, funtzionarioek berretsi dute gobernuz kanpoko erakunde-ko ikertzaileek ezin izan dituztela «modu independentean egiaztatu» aipatutako kasuak. «Mugako Guardiako ofizialen gehiegikerien edo legez kanpoko ekintzen frogarik izanez gero, bai kazetariak, bai gobernuz kanpoko erakundeetako kideek salaketa jarri diezaiokete poliziari».

Ministerioak ez du komentatu mugako krisiak tartariar komunitatearengan izandako eragina, ez eta haren etorkizunari dakarkion arriskua.

HILOBI PARTEKATU BAT

Kondairak honela dio: tartariar kapitain trebe baten zerbitzuak ordaindu nahian, poloniar erregeak egun bakar batean zaldiz zeharka zezakeen lur guztia eman zion Podlasian. Benetako istorioa, baina, bestelakoa da. XVII. mendearen amaieran, erregeak tarta-

riarren laguntza eskatu zuen, monarkiaren aurkako matxinada bati aurre egiteko, hain zuzen. Podlasiako lurak eman zitzaizkien ordainetan.

Gaur egun, Kruszyniany eta Bohoniki herri tartariarrak bigarren mailako errepideek lotzen dituzte. Baso arteko bidaia bada ere, kosta egiten da horma saihestea: ez da beti ikusten, baina, askotan, ezinezkoa da bazterketa eremutik zirkulatzen ari garen jakitea. Ekialderantz desbideratzen diren lur-pista gehienek harresi metaliko baten kontra jotzen dute. Horietako batek etxalde bateraino eraman gaitu. Egun-sentian, baratzea ukitzen du hormaren itzalak. Nekazari batek esan digu hobe dugula alde egitea: gu ikusi bezain laster, poliziari deitu dio, duela hamar bat minutu.

Zuhaitzen adaburuen gainetik, hegazti saldo bat agertu da. Hormaren zein aldetatik aireratu dira? Bisonte batek izutu ditu? Bielorrusiako patruila-auto batek? Interneteko seinalea ahula da eta, sarritan, Bielorrusiako zerbitzuarekin lotzen gaitu. Hegaztiak lez, uhinek ere arazorik gabe egiten dute hegan harresi gainetik. *Welcome to Poland* jasoko dute hormaren beste aldean daudenek?

Swisloczanyko tren geltokian, «bakea» irakur daiteke, errusieraz, norbaitek noizbait altxatu zuen metalezko egitura baten gainean. Dena herdoilak jota dago, eta aspaldi ez dabil trenik. Bohoniki herrian ere erraz topa daiteke meskita. Kupula bakarreko egurrezko eraikin gorria da.

«Udako denboralditik kanpo ez da ia inor bertaratzen», damu du Miroslava Lisoszuak. Soldata osatzearren, nekazari honek turistak gidatzen ditu

«Udako denboralditik kanpo ez da ia inor bertaratzen», damu du Miroslava Lisoszuak. Soldata osatzearren, nekazari honek turistak gidatzen ditu tenplu barruan

Zuhaitzen adaburuen gainetik, hegazti saldo bat agertu da. Hormaren zein aldetatik aireratu dira? Bisonte batek izutu ditu? Bielorrusiako patruila-auto batek?

tenplu barruan. Iaz heriotza eragin zuen Mugako Guardiaren kontrako erasoa gertatu zenetik, eta migratzaileekin lotutako debekuarengatik, bestetik, bisitari kopurua biziki jaitsi dela dio. Bialystokeko emakume bat eta bere alaba

nerabea bat datoz. «Bisita hau behin baino gehiagotan bertan behera utzi dugu albiste horien guztien erruz, baina pozten naiz azkenean etorri izanaz», dio amak. Senarra zain dute kanpoan, auto barruan.

Bohonikiko kanposantura ere iritsi da nahasmena. Duela 200 urte baino gehiago harresitu zuten herriaren kanpoaldean. Poloniako hilerri musulman handiena da, bi hektareakoa. Nonahi topa daitezke lore-koroak, poloniera eta arabierazko inskripzioak, metalezko ilargi erdiak...

Hamar migratzailerena dira xumeenak, sarreratik urrunen dagoen lursailean. Haien artean, haur bat eta identifikatu gabeko norbait daude. Diotenez, ehunka lagun arrastoa galdu egiten da oihan honetan, hormaren alde bietan. Noizean behin, sastraka eta lokatz artean, norbaitek hildako baten arrastoekin topo egiten du.

Hotzak hildako migratzaile baten hilobia, Bohonikin.
Gilad SADE

